

Etiopia berria Madrilen

Bernardo Atxagak herenegun Madrilen aurkeztu zuen 'Nueva Etiopia' disko-liburua

Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez, Mikel Laboa, Gari eta Jabier Muguruzaren laguntzarekin, herenegun, Bernardo Atxagak poema errezitaldia eman zuen Madrilen. Arte Ederretako Zirkulua jendez lepo bete zen. Aurkezpenak, musikarien saioekin, euskal festa baten tankera hartu zuen.


Berriemaile berezia

Rikardo Lopez Elduaian / Madril

«BENVINGUTS, benvinguts. Paseu, paseu. Bienvenidos. Pasad, pasad. Ongietorriak. Aurrera, aurrera». Gonbidapen hitz horiekin hasi zuen Bernardo Atxagak, Madrilgo Arte Ederretako Zirkuluan, *Nueva Etiopia* disko-liburuaren aurkezpena joan den ostegunean. Ekitaldiak euskal literaturaren eta musikaren topagune bihurtu zuen Espainiako hiriburuaren bihotza.

Nueva Etiopia lan berria, Atxagak 1978an argitaratu zuen *Etiopia* poema bilduma eta egun prestatzen ari den *Bigarren Etiopia* poema liburuaren arteko zubia da. Lehenengo edizioaren bost mila aleak Euskal Herrian agortu dira, eta bigarrena Espainian zabalduko du El Europeo argitaletxeak.

Sarrera hitzaldian, Atxagak egun gutxi zirela ekitaldiarekin amets egin zuela adierazi zuen, eta bere burua Donostiako Orfeoia bezala ikusi zuela *Agur jaunak* abesten ikusleak omendu gogoz: «Erregearentzat ona dena herriarentzat ona izango da, ezta?», galdetu zion bere buruari barre eginez, esandakoa gidotik kanpo zegoela aitortuz, denborapasa zegoela, Joseba Salvador



Atxagak gazteleraz errezitatu zituen gero berarekin ziren musikariek kantatu zituzten poemak.

JAGOBA MANTEROLA

piano jolea berandu baitzebilien, hegazkinarekin izandako arazo batengatik.

Poemak eta musika • Ondoren, prestatutako gidoia jarraituz Atxagak poemak gazteleraz irakurri zituen. Segidan, Ruper Ordorikak, Juan Carlos Perezek, Jabier Muguruzak, Gari eta Mikel Laboak poema berak euskaraz abestu zituzten. Ordubetez, literatur kritikari, akademiko eta saltzaileen arduratik at, euskal rock, pop, folk soinuek seihun lagun inguruz gainezka zegoen Zutabeen Aretoa ondo berotzea lortu zuten. Musika estilo oso ezberdinak, asteasuarraren hitzak abesteko.

Lizardi, Laboak abestu eta dantzatu zuen tangoak ikusleen harridura piztu zuen. Joseba Ta-

piano trikitilaria bakarrik falta zen diskoan azaltzen diren musikarrietatik, euskal festa itxura izan zuen aurkezpen honetan.

Atxagak, 70eko hamarkadan Bilbo hiria sormen eszenatoki gisa hartu zuten euskal artista gazteen belaunaldiaren gora-behera pertsonal eta estetikoaren ibilbidean eraman gintuen. «Irudimenezko hiria, Bizkaiko kapitalaren gainean edo azpian dagoena, bertan islatzen gertatuena geure desioak. Baina errealtatea ez zen egon gure desioen neurrian. Lagun batek kalkulatu zuen Bilbo erreala gure Bilbo idealaren % 17 besterik ez zela». Umore onez mintzo zen *Nueva Etiopia* lanaren egilea.

Aurkezpen ekitaldiari esker, Madrilgo ikus-entzuleak Bernardo Atxagak urteetan zehar

Euskal Herrian egin dituen poesia eta musika ikuskizunen lekuko izan ziren, eta gainera azken hamarkadetakoa euskal musikari garrantzitsuenekin gozatzeko aukera izan zuten. Madrilen bizi diren euskaldun asko —ikasleak, aktore ezagunak eta beste— elkartzeaz gain, euskal idazlea eta berarekin etorritako musikariak hiri honetan dituzten miresleen aniztasunaren lekuko izan ziren: okupak, ile koloretatutako gazteak, hogeita hamar urte inguruko bikoteak eta adineko gizon korbatadunak.

Denek miretsi zuten euskal poesia eta musikaz osatutako ikuskizuna. Madrilgo zeru lainotuaren babespean, Mikel Laboak agur beroa eman zuen *Antzinarako Bihotz*-ekin denen barrenak hunkituz. X

Gabriel Celaya zenaren marrazki eta olioak Donostian

■ Madrilgo Ikasleen Egoitzan bizi izan zenekoak dira erakusketako lanak, 1927tik 1935era artekoak

Erredakzioa / Donostia

GIPUZKOAKO Foru Aldindiarren eta Madrilgo Ikasleen Egoitzaren elkarlanaren ondorioz, Gabriel Celaya poeta hernaniarraren marrazkiak eta olioak ikus daitezke egunotan Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean erakusketara aretoan. Celaya Ikasleen Egoitzan bizi zen garaiko lanak dira erakusketakoak, Koldo Mitxelena kulturunean fondoetatik hartuak. Donostian baino lehen Ikasleen Egoitzan ikusi ahal izan

da erakusketara hau, Madrilen.

Juan Perez de Ayalak Gabriel Celayaren marrazkiekin «kasualitatez» egin zuela topo dio erakusketaren eskupapererako idatzitako testuan. «Erakusketak Celayaren gaztaroko lanetan dagoen aberastasuna eta kalitatea azaldu nahi du», dio aurreago Perez de Ayalak.

Rafael Mujika, *Gabriel Celaya*, 1927tik 1935era bitartean bizi izan zen Ikasleen Egoitzan. Garai hartan arte plastikoetarako joera handia izan zuen Celayak, gero

joera horri poesiarako isuria gailenduko bazitzaion ere. «Gabriel Celaya olerkigilea jaio zenean Rafael Mujika hil zela esan genezake», dio Perez de Ayalak ares-tian aipatutako eskupaperarean, «eta Ikasleen Egoitzan igarotako urteetan sortutako olerki eta pintura lanak olerkigileak, oso maitekero, esan beharra dago, gordeta utzi zituen».

Hernanin 1911an jaioa eta Donostian 1991n hila, Gabriel Celaya Espainiako poesia sozialaren ordezkariarik ezagun eta

prestigiotsuenetako bat izan zen. «Mundua aldatzeko tresna» zen berarentzat poesia. *Marea del silencio* (1935), *Las cartas boca arriba* (1951), *Cantos Iberos* (1955), *Gaviota* eta *Orígenes* (1990) dira Celayaren hainbat liburu ezagun.

Asteartetik larunbatera bitartean bisita daiteke Celayaren lan plastikoaren erakusketara martxoaren 8ra bitartean. 10:30etatik 14:00etara dago aretoa zabalik astegunetan eta 16:00etatik 20:30etara larunbatetan. X

Bost kontzertu didaktiko emango ditu BOsek Bilbon

■ Otsailaren 1ean hasiko da BBKren babesean 10 urte beteko dituen zikloa

Montse Arregi / Bilbo

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK (BOS) Kontzertu Didaktikoen X. Zikloa hasiko du datorren otsailaren 1ean. Bilboko haurrek eurei egokitu-tako egitaraua prest daukate eta bost kontzertuetan zehar musika klasikoak hurbiletik, zuzenean eta modu atseginetan gozatzeko parada izango dute. Iaz 10.000 ume inguruk hartu zuen parte ekimenean, eta egindako 10 urteetan 70.000 gaztetxo izan dira partaide.

Juan M^a Betanzos izan da musika eta testuen aukeratzailerak. Azken urteetan legez, kontzertuak aurkezteaz Araceli Gonzalez, Fernando Argenta eta Joseba Agirretxea arduratuko dira.

Lehen lau kontzertuak Ayala antzokian egingo dira, eta azkena, berriz, La Casilla kiroldegian. Otsailaren 1eko kontzertua Gorka Sierak zuzenduko du, eta Haydn, Mozart eta Mendelssohn musikagileen lanekin *tempo*-ren gaia jorratuko dute. Otsailaren 22koa, berriz, Julio Lanuzar zuzendariak gidatuko du, eta musika deskriptiboa eta dantza izango ditu aztergai. Grieg, Mussorgsky, Turina, Strauss, Tchaikovski eta Gurudiren partiturak interpretatuko ditu BO-Sek.

Azken kontzertuan

zinemako musika • Martxoan kontzertu didaktiko bakarra izango da, hilaren 1ekoa, alegia, Purcell, Britten, Bach eta Stokowski-ren lanekin *fuga*-ren berri jasoko dute aurrek Achim Fiedler-ek zuzendutako kontzertuan. Apirilaren 26an, berriz, *obertura* izango dute aztergai Gabriela de Estebanek zuzendutako duen emanaldian. Berlioz, Prokofiev, Wagner eta Rossiniren lanen eskainiko dute horretarako bidea. Azken kontzertua, La Casillan maiatzaren 3an egingo dena, Juan Jose Menak zuzenduko du. Zinemako musika eza-guna izango da protagonista, *western*-etako musikarekin batera hainbat filme ezagunetako eskainiko du Bilboko Sinfonikoak, hala nola *Gone with the Wind* (Haizeak eramana), *Pink Panther* (Pantera arrosa), *Patton*, *Star War* (Izarretako gerra), *Superman* edota *Indiana Jones*-en abenturetako doinuak.

Kontzertuok orain arte izan duten arrakasta errepikatu egingo delakoan daude antolatzaileak. Bilbao Orkestra Sinfonikoko eta Bilbado Bizkaia Kutzako arduradunek aurrerantzean ere ekimen honen jarraitzeko asmoa agertu dute. X

gure zinemaren historia petrala

Koldo Izagirre

Historia hau ez da akademikoa. Datuak komentaturik datoz, egilearen aipamen gaiztoz.

SUSA